GOBIERNO DE ESPAÑA | MINISTERIO DE HACIENDA Y FUNCIÓN PÚBLICA | SECRETARÍA DE ESTADO DE PRESUPUESTOS Y GASTOS | SECRETARÍA GENERAL DE FONDOS EUROPEOS | DIRECCIÓN GENERAL DE FONDOS EUROPEOS

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

UNIÓN EUROPEA

*Una manera de hacer Europa*

# BUENAS PRÁCTICAS
# Actuaciones Cofinanciadas

**Azitain-Maltzaga bizikleta eta oinezkoen bidea**
**Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua**

## Programa Operativo de País Vasco

Año 2022

**Fondo Europeo de Desarrollo Regional**

**Europako funtsekin kofinantzatutako jarduketen jardunbide egokiak**
**AZITAIN – MALTZAGA BIZIKLETA ETA OINEZKOEN BIDEA**

## AURKEZPENA

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialak, Gipuzkoako Batzar Nagusiek 2013an onetsiak, aurreikusten du bizikleta bideen hiriarteko lurralde sare bat egitea, udalerriak elkarrekin konektatuta, bizikleta bidezko konektagarritasuna gure lurraldean bermatzeko.

Egunerokoan hiriko eta hiri inguruko joan-etorriak bizikletaz egiten dituztenei zerbitzu ematea du helburu nagusi, bizikleta bidezko aisialdia eta turismoa ere barne. Aldi berean, oinezkoak mugitzeko aukerak ere eskaintzen ditu, koexistentzia eta segregazio soluzioen bitartez.

Hiriarteko sare planifikatu honek 399 kilometroko luzera du gaur egun, eta horietatik 235,4 km zerbitzuan daude dagoeneko.

Sare honen esparruan, bizikleta eta oinezkoen Eibar-Maltzaga-Elgoibar ardatzaren konexioa bukatzea zegoen aurreikusita, Azitain – Maltzaga izenekoa hain zuzen, alde batetik, Debabarreneko udalerri nagusiak elkarrekin lotzeko (Eibar, eskualdeko burua, 27.195 biztanlekoa; eta Elgoibar, 11.384 biztanlekoa), eta, bestetik, eguneroko joan-etorrietan eta aisialdiarekin lotutako desplazamenduetan mugikortasun aktiboa bultzatzen jarraitzeko. Ohartarazi behar da ezen, lehenago, bi udalerrien arteko joan-etorriak abiadura handian zirkulatzen duen trafiko ugariko ingurune batean egiten zirela, eta bertan oso espazio gutxi zeudela naturatik hurbil paseatzeko eta aisialdiaz gozatzeko. Horrek bide ematen zuen pentsatzeko aipatzen ari garen azpiegituran eskari handi bat sortuko zela bizikletazaleen eta oinezkoen aldetik.

Hemen Jardunbide Egoki gisa aurkezten dugun jarduketa aipatu dugun Azitain –Maltzaga zatia eraikitzean datza. Zati horrek 2,1 km-ko luzera du, eta bere berezitasuna da zail gertatu dela haren trazadura Ego bailara estuan uztartzea, ibaia bide azpiegitura garrantzitsuen artean mugitzen baita bertan. Izan ere, hor daude N-634 eta GI-627 errepideak, Euskal Trenbide Sarearen burdinbidea, eta AP-1 eta AP-8 autobideak.

Jarduketa hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak bultzatu du, eta haren kostua 5.221.276,58 eurokoa izan da. Europako Erkidegotik 1.135.214,32 euroko laguntza jaso du EAEko 2014-2020 aldiko EGEF Programa Operatiboaren esparruan.

Gure ustez, zilegi da jarduketa hau Jardunbide Egokitzat jotzea, Europako Funtsekin kofinantzatutako Jarduketen Jardunbide Egokiak hautatzeko definitu diren irizpideak ongi betetzen direlako. Hona hemen irizpide horiek:

**1. IRIZPIDEA. Onuradunei eta, oro har, herritarrei behar bezala ezagutaraztea proiektua.**

Komunikazio jarduketa hauek eraman dira aurrera:

**Informazio kartelak jarri dira** obraren exekuzioan zehar, baita **plaka iraunkorrak instalatu** ere obra amaitutakoan







**Prentsa oharrak** argitaratu dira EGEFren parte hartzea nabarmenduz

ACTUALIDAD TEMAS DIPUTACIÓN SEDE ELECTRÓNICA ES

# El bidegorri Azitain-Maltzaga estará listo a lo largo del próximo año

La diputada de Movilidad y Ordenación de Territorio, Rafaela Romero, ha visitado en Eibar la construcción del tramo de cerca de dos kilómetros que culminará la conexión ciclista y peatonal entre Eibar y Elgoibar.

14/11/2019 MOVILIDAD



La diputada foral de Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, Rafaela Romero —en compañía del alcalde de Eibar, Miguel de los Toyos— ha visitado este mediodía los trabajos de construcción del bidegorri Azitain-Maltzaga, iniciados en verano de 2019.

El nuevo tramo, con un presupuesto total de 5,1 millones de euros, tendrá una longitud próxima a los 2 kilómetros de distancia, y está siendo ejecutado en dos fases. La primera de ellas, en curso ahora mismo, arrancó en el barrio eibarrés de Azitain y su conclusión está prevista para a lo largo del próximo año. Una segunda fase permitirá la conexión posterior con Maltzaga, que marca la frontera entre Eibar y Elgoibar y enlaza con el tramo de bidegorri ya construido en la localidad elgoibarresa. Dicha conexión será posible gracias a la construcción de 5 pasarelas —2 de ellas de más de 80 metros de longitud — que cruzarán el río Ego, por un lado, y el río Deba y la carretera GI-627, por otro.

Tras comprobar en Azitain el progreso de los trabajos del bidegorri, la diputada Rafaela Romero ha puesto en valor la trascendencia del nuevo trazado. "La orografía y las infraestructuras ya existentes en el recorrido hacían de este tramo un reto muy complicado, que ha requerido un análisis técnico muy riguroso y exhaustivo, de modo que es una enorme satisfacción comprobar que la construcción está ya en marcha y que pronto será una realidad. Esta vía peatonal y ciclista va a suponer todo un hito en el fomento del transporte sostenible en Debabarrena, y viene a atender las demandas de la ciudanía de la comarca, que la usarán a diario. Es la política que acaba en hechos".

En palabras del alcalde, Miguel de los Toyos, "a pesar de los problemas internos que ha tenido la Diputación, por fin, han comenzado las obras del bidegorri tan esperado por miles de eibarreses/as, tal y como dejaron patente las miles de firmas obtenidas por el grupo de la Escuela de la Experiencia".

El nuevo bidegorri tendrá una anchura de en torno a 3 metros durante gran parte de su recorrido, por lo que permitirá albergar el tránsito fluido y seguro de bicicletas y peatones, y enlazará de manera definitiva el eje Eibar-Maltzaga-Elgoibar, completando así la unión ciclista y peatonal entre las localidades de Eibar y Elgoibar. "Se trata de un tramo clave para la movilidad sostenible en Debabarrena, que permitirá conectar a sus personas con seguridad, atendiendo a una vieja demanda de la comarca", ha concluido Romero.

La vía Azitain-Maltzaga viene a sumarse a la red de bidegorris de Gipuzkoa, que cuenta con353 kilómetros de recorrido y conecta entre sí todas las comarcas de nuestro territorio.

Esta actuación está cofinanciada por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional en el marco del Programa Operativo FEDER del País Vasco 2014-2020.

Informazioa argitaratu da **Bizikletaz** aldizkarian.


En este contexto, la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de la Dirección General de Movilidad y Transporte Público del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio, tiene previsto desarrollar una serie de actuaciones que contribuirán a ese objetivo y que serán cofinanciadas por el FEDER a lo largo del periodo 2014-2020. En concreto, entre las actuaciones previstas está la construcción de vías ciclistas y peatonales interurbanas, conforme al diseño de red realizado en el Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Gipuzkoa, de forma que se unan los distintos núcleos urbanos del territorio entre sí, y esos con polígonos industriales, barrios aislados y otros centros de atracción existentes a lo largo del trazado de la vía ciclista.

A este respecto, entre las principales actuaciones llevadas a cabo por la Diputación Foral de Gipuzkoa en el periodo 2014-2020 son las siguientes: Tramo Anoeta-Tolosa, Tramo Itsasondo-Ordizia, Tramo BergaraElorregi, Tramo Errekalde-Lasarte y Tramo Lasarte-Txikierdi. Estas actuaciones han supuesto la construcción de 7,4 km con una inversión de 4,1 millones de euros. Asimismo se prevé la cofinanciación de la construcción de la vía ciclista Eibar-Maltzaga. Se trata de un proyecto de gran complejidad técnica debido a la orografía del recorrido y a las infraestructuras viarias y ferroviarias que debe sortear. El tramo de casi dos kilómetros contará con 5 pasarelas junto al río. El presupuesto del mismo es de 5,1 millones.

Europar Batasuna
Unión Europea

Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)
*"Una manera de hacer Europa"*

Eskualde Garapenerako Europar Funtsa (EGEF)
*"Europa egiteko modu bat"*

ZIKLOTEKA

REDES SOCIALES

EL TIEMPO

Bitarteko Erakundeak bere **web orriaren** bidez eman du proiektuaren berri


Europako funtsak 2014-2020

Gipuzkoa / Europako funtsak / EGEF Proiektuak / Bidegorriak

Europar Batasuna
Unión Europea

**2014-2020 EGEF PROGRAMA OPERATIBOA**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

**Ardatza:** 4. Karbono-isuri gutxiko ekonomia lortzeko bidean, sektore guztietan urratsak ematea

**Helburu espezifikoa:** 4.5.1 Hiri-mugikortasun jasangarria sustatzea: hiri-garraio garbia, garraio kolektiboa, hiri- eta landa-eremuen arteko lotura, bide-sarearen hobekuntzak, txirrindulari eta oinezkoen garraioa, mugikortasun elektrikoa eta energia berriak hornitzeko sistemen garapena.

**Jarduera:**

**Lurraldearen bizikleta bideen plana garatzea**

**Organo kudeatzailea:** Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua

**Inbertsioa:** 5.509.318,45 **EGEF Laguntza:** 2.717.454,78

**Jardueraren deskripzioa:**

Jarduera Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala garatzean datza, lurraldeko hiriguneak elkarrekin lotzeko, eta hirigune horiek bizikleta-bidearen trazaduran dauden industrialdeekin, auzo bakartuekin eta bestelako erakarpen-zentroekin lotzeko.

**Gauzatze adierazleak:**

[Bidegorris - Fondos europeos - Fondos europeos (gipuzkoa.eus)]

Era berean, proiektuari buruzko **bideo** informatibo bat egin da, hemen deskarga daitekeena: [Azitain-Maltzaga]







2020ko abenduan **inaugurazio ekitaldia** egin zen, eta bertan izan ziren diputatu nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatua, Eibarko alkatea eta Elgoibarko alkatea.

**2. IRIZPIDEA. Jarduketak elementu berritzaileak dakartza.**

Jarduketa honi esker, posible izan da probintzia mailako hiriarteko sare bat osatzen duten bi zati errematatzea, eta lotura estrategiko bat eratu da Debabarrena eskualdean mugikortasun aktiboa bultzatzeko, horrelako azpiegituretan gabeziak dituela kontuan hartuta. Gainera, ibilbide honek badu aukera eskualde mugakideekin konektatzeko, Bizkaiko Durangoaldearekin esate baterako, eta ibilbide eta lurralde eremu handiagoko beste bizikleta sare batzuen parte izateko aukera ere zabaltzen zaio.

Era horretan, herritarren eta erakundeen etengabeko eskariari ere erantzuten zaio, aintzat hartuta bide sare konbentzionalean ibilgailu motordunen trafikoa handia dela eta ez dagoela bizikletaz mugitzeko bide seguru, zuzen eta erakargarririk, ezta paseatzeko espaziorik ere.

Hortaz, obra honi esker, orain herritarrek aukera dute bizikletaz ibiltzen direnean bidaia seguruak eta ibilgailu motordunetatik aldenduta egiteko, eta, aldi berean, koexistentzia bultzatzen da oinezkoen eta txirrindularien joan-etorrietan.

Egindako obraren konplexutasun teknikoa nabarmendu beharra dago nahitaez, Gipuzkoako bizikleta bideen hiriarteko sarean egin den handiena baita. Izan ere, azpiegitura honek Ego eta Deba ibaien ibilguak gainditu behar izan ditu, bai eta AP-1 autobidea, GI-627 errepidea, Azitaingo Bidegiko ordainlekua, Lurraldebuseko lineetako bidaiarien garraio publikoko geralekuak eta Euskotreneko geltokiak ere. Horretarako, lau pasabide instalatu behar izan dira, horietako bi 80 metro luzetik gorakoak, hain zuzen ere, Ego eta Deba ibaiak eta GI-627 errepidea gurutzatzen dituztenak.

Jarduketa hau berritzaile gertatzen da berekin ekarri duelako ingeniaritza lan bat egitea konplexutasun tekniko handia duen, egokitzapen fisiko zaila eskatu duen eta oso garestia atera den bizikleta bide bat eraikitzeko, Espainiako Estatuko beste lurraldeetan orain arte egindakoekin parekorik ez duen esku hartze bat izateraino. Izan ere, eginda dauden bizikleta bide zati guztietatik, ez da ezagutzen azpiegitura handiek nabarmen okupatutako inguruneetan sartzea lortu den beste kasu baliokiderik, ezta 2 kilometroko luzeran lau pasabide instalatzea (horietako bat 80 metro luzetik gorakoa) eta bi ibai, errepide bat eta autobide bat gurutzatzea exijitu duenik ere.

**3. IRIZPIDEA. Lortutako emaitzak ezarritako helburuetara egokitzea.**

Bizikleta eta oinezkoen bide hau martxan jarri izanak berekin ekarri du betetzea Eibar eta Elgoibarri zuzeneko zerbitzua ematen dien lotura estrategiko hau gauzatzeko helburua, eta, aldi berean, aurrera egin da Gipuzkoa osorako aurreikusitako bizikleta bideen hiriarteko sarearen garapenean.

Era berean, erantzuna eman zaie eskualde horretatik iritsi diren eskaera historikoei: trafiko motordunetik bereizitako bizikleta bideak eratzea eguneroko joan-etorriak eta aisialdikoak modu seguruan egiteko, eta herritarrek aire zabalean gozatzeko ageri dituzten premiak asetzea.

Aldi berean, jarduketa hau lagungarri gertatzen da istripu tasa, zarata mailak eta berotegi efektuko gasen emisioak murrizteko, bai eta osasuna hobetzeko ere, joan-etorriak ibilgailu motordunetan egin beharrean oinez eta bizikletaz egiten baitira, modu askoz osasungarriagoan.

**4. IRIZPIDEA. Eskualdeko arazo edo ahulgune bat gainditzen laguntzen du**.

Debabarrena eskualdean bizikleta azpiegiturei dagokienez dagoen defizita murriztea lortu da, lurralde historiko honetako gainerako lurraldeekin alderatuta, eta, horrela, betetzen jarraitu dira bai Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialean ezarritako programazioa eta bai «Gipuzkoan Klima Aldaketari aurre egiteko 2050 Estrategian» aurreikusitako helburuak, zeinak berotegi efektuko gasen emisioak murriztera bideratuta baitaude.

Bestalde, azpiegitura hau garrantzi handiko alternatiba bat da Eibar eta Elgoibar artean automobilez egiten diren eguneroko joan-etorrietarako, bi herrien artean egiten direnen % 84 baitira.

**5. IRIZPIDEA. Estaldura maila handia hartzaile den biztanlerian.**

Azpiegitura honek biztanlerian duen estaldura maila altua dela esan daiteke, Debabarrena eskualdeko herri garrantzitsuenak lotzen baititu (Eibar, eskualdeko burua, 27.195 biztanle dituena; eta Elgoibar, 11.384 biztanle dituena). Horri gehitu behar zaio emakumeen artean mugikortasun aktiboa sustatzen lagunduko duela; izan ere, argi dago horrelako bideak abian jartzeak haien erabilera handitzea dakarrela, batez ere emakumeen artean.

Gainera, kontuan izanik bi herri horiek Euskal Trenbide Sarearen trenbideak zeharkatzen dituela, zati hau martxan jartzeak areagotu egingo du trenaren eta bizikletaren erabilera konbinatua ibilbide ertain eta luzeko joan-etorrietan, eta, beraz, jarduketa honen onuradunak ez dira izango inguruetan bizi direnak bakarrik.

Bestalde, jarduketa honek berekin ekarriko du eskualdeko biztanleek arnasten duten airearen kalitatea hobetzea; izan ere, ibilgailuak utzi eta haien ordez oinez eta bizikletaz ibiltzeak zuzeneko eragina izango du berotegi efektuko gasen eta atmosferara isurtzen diren bestelako kutsatzaileen murrizketan.

**6. IRIZPIDEA. Aukera berdintasunari, diskriminazio ezari, ingurumenaren jasangarritasunari eta/edo gizarte erantzukizunari buruzko irizpide horizontalak kontuan hartzea.**

Gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasunari eta diskriminazio ezari buruzko printzipioak proiektua osatzen duten fase guztietan hartu dira kontuan. Zehazki, exekuzioan zehar emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu beharra ezarri zen, berdintasun plan bat barne. Era berean, neurriak aurreikusi ziren obran jardun duten langileen bizitza pertsonala eta/edo familiakoa uztartzen laguntzeko eta familia kargak dituzten langileen ordutegiaren malgutasuna bermatzeko. Orobat, sortutako dokumentazioan eta publizitatean hizkuntza ez-sexista erabili zen, eta emakumeen irudi diskriminatzaileak edo estereotipo sexistak saihestu ziren.

Egindako jarduketak ingurumenaren arloan aplikatzekoak diren betebeharrak betetzen ditu. Obraren enpresa esleipendunak frogatuta utzi zuen ingurumen kudeaketako arauak betetzen dituela. Gainera, obraren exekuzioan zehar, Hondakinak Kudeatzeko Plana aplikatu zen, eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa kontrolatzen duena.

Besteak beste, obra honek joan-etorriak oinez eta bizikletaz egiteko aukerak ugaltzen ditu, mugitzeko modu aktiboak biak, automobilaren ordez erabiltzekoak, trafikoaren intentsitatea arindu eta, ondorioz, berotegi efektuko gasen emisioak murrizten laguntzen dutenak.

**7. IRIZPIDEA. Sinergiak esku-hartze publikoaren beste politika edo tresna batzuekin.**

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialean lurralde honetako bizikleta bideen hiriarteko sarea egiteko ezarritako programazioaren barruan sartuta dago jarduketa hau.

Orobat, «Gipuzkoan klima aldaketari aurre egiteko 2050 Estrategiaren» barruan ere kokatzen da, zeinean berariaz aurreikusten baita plan horretan aurreikusita dauden eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren titulartasunekoak diren bizikleta azpiegituren garapena amaitu beharko dela.

Komeni da adieraztea jarduketa hau guztiz bat datorrela Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak Bizikletaren alde abiatutako Estrategiarekin, zeinak markatzen baitu zein ildo nagusi erabiliko dituen Espainiako Gobernuak bizikletaren alde 2025. urtera bitarte. Hain zuzen ere, estrategia horrek proposatzen du hiriarteko bide sare bat osatzea Espainiako geografia osoan barna, ardatz jarraitu eta homogeneoak direla medio. Era berean, laguntzak aurreikusten ditu bizikleta bideak planifikatu, eraiki eta artatzeko, hiri barruko eta hiriarteko bideen artean jarraitutasuna lortzeko.

Halaber, bizikleta bide honek bete egiten du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Arauak ezarritakoa. Izan ere, foru arau horrek dio Gipuzkoako Foru Aldundiak bermatu behar duela mugikortasun baliabide jasangarriak izatea eta kutsatu gabeko ingurune seguruak sortzea bizitza komunitarioa sustatzeko. Horren ondorioz, aipatutako foru arauak Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuari agintzen dio mugikortasuna bultzatzean genero ikuspegia txertatzea, bereziki emakumeen beharrak kontuan hartuta. Horri dagokionez, enpirikoki egiaztatuta dago bizikleta bideak egiteak bizikletaren erabilera handiagoa dakarrela proportzionalki emakumeen artean, eta horrek baduela eragina bizikleta erabiltzen dutenen artean gaur dagoen genero arrakala murrizteko.

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE HACIENDA Y FUNCIÓN PÚBLICA
SECRETARÍA DE ESTADO DE PRESUPUESTOS Y GASTOS
SECRETARÍA GENERAL DE FONDOS EUROPEOS
DIRECCIÓN GENERAL DE FONDOS EUROPEOS

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

UNIÓN EUROPEA

*Una manera de hacer Europa*



# BUENAS PRÁCTICAS
# Actuaciones Cofinanciadas

**Fondo Europeo de Desarrollo Regional**